

## mendia ▸ IBILBIDEAK



# Lapoblación haitza, loak hartutako lehoia

Lapoblación herria eta haitza, Lehoi Lokartua. ASIER AGIRRESAROBÉ-MUSKILDA TELLABIDE

Nafarroako mendebaldean dagoen haitza igoko dugu, Marañoongo gaztelua zenaren aztarnen bila

## ASIER AGIRRESAROBÉ-MUSKILDA TELLABIDE


Ebro ibaitik bertatik abiatuta, Toloño, Kantabria eta Kodes mendi-zerrek sartaldetik sortaldere luzatzen den 50 kilometrotik gorako murru itzela osatzen dute, hegooaren eta iparraren arteko hesi naturala bilakatu. Oldarkik goragune duen harrizko murru horretako partaide da igoko dugun haitza ere. Hego isurian, eguteraan, dagoen tontorrera igotzeko egokia den abiapuntua, Lapoblación herria.

Arabako Errioxa bistan eduki arren, Nafarroa mendebaldean dago Lapoblación, eta udalerrira osatzen du kilometro batera dagoen Meanoekin. 960 metroko altueran, Abaurregainaren atzetik, Nafarroako bigarren herri garaiena da, eta eguteraan egonagatik, neguak gordinak dira. Mendiaren ipar isuriko Marañoongo biztanleek sortu zuten herria, XII. mendean, haitz gaineko gaztelua bezala.


Eliza erromanikoaren atariko arkua bisitatu ostean, haren atzetik abiatzen den pista zabaletik ekin behar diozue bideari, herriko etxeak atzean utzi, eta etxeletera erkametz basoan barneratzeko. Bide zuzena aurkitzea zaila ez den arren, hasieran adi behar duzue

### Erreferentziak

00:00 Lapoblación  
00:30 Ebakia  
00:45 Gailurra  
01:20 El Plantioko pista  
01:40 Lapoblación



Desnibela 300 m  
Zailtasuna \* \* \* \* \*  
Luzera 4,2 km  
Denbora 60 min



egon; izan ere, inguru hartatik, marra zuri eta berdez atonduriko SL-NA 195 ibilbidea ere abiatzen da, eta tontorra igo beharrean, hura inguratzen du, gure ibilbidearekin azken zatian bat egin arren.

Harkaitzaren oinean, bihurtu-nea ematerakoan pista zabala zidior bilakatuko zaizue, ordukoa baino tenteagoa. Maldan gora bertiere, emeki-emeki hainbat bihurtu-nea emanez, altuera irabaziko duzue. Gailurra ez duzue urrun eta itzulia ez da luzea; hortaz, noizean behin atseden hartu, burua jaso eta ikuspegiak gozatu, merezi du eta. Berehala iritsiko zarete haitzaren ipar isuria ikusteko modua emango dizuen haitzaren ebakira (1.165m). Euskal Herriko gailur na-

gusienez gain, El Plantio pagadi biko-ina ikusiko duzue behean, eta urrunago Marañoñ, Kabredo, Uxunari, Durruma Kanpezu... Ega ibaiaren goi ibarreko herriak.

Bideari eutsi berriro, eta galbiderik gabe, gailurrera eramango zaituzte (1.245m). Iritsi baino metro batzuk lehenago, ordea, tontorrean lekuturik zegoen gaztelura sartu ahal izateko lubakia gaintzen duen harrizko zubitik igaro beharko duzue. Gazteluaren hainbat harrizko horma ikus daitezke

**Izen ugari ditu Lapoblación haitzak; bertakoek, besteak beste, El León Dormido izenez izendatzen dute**

tontorraren inguruan, hiru metroko altuera dutenak batzuk. Errepikagailu batek menperatzen zuen tontorra duela gutxi arte. Gaur, zorionez, libre utzi dute, hormigoizko plano karratu bat antzeman badaiteke ere tontorreko ordokian. Izen ugari dituen gailurra da, Lapoblación haitza aipatu badugu ere, bertakoek, besteak beste, La Picota de la Aldea, El Risco de la Aldea, El Castillo eta El León Dormido izenez izendatu ohi dituzte; azken izen hau, distantzia nabarmen batetik hegoaldeko begiraturaz gero, mendiak dituen tontor ezberdinek etzanda dagoen lehoi baten silueta irudikatzen dutelako.

Goitik duzuen ikusmira ederra bezain zabala da. Ipar eta hego, gai-

## Marañoongo gaztelua

Conchas de Haro haitzartetik hasita, ekialdera luzatzen den mendizerra zorrotz horretan hainbat talaia nabarmen-tzen dira. Bada, horietako bakoitzean gaztelu bat egon zen Erdi Aroan, Nafarroako erresumaren hegoa zaintzea xede zutela. Ekialdetik mendebaldera hauek ziren gazteluak: Buradon, Toloño, Ferre- ra, Toro, Marañoñ, Punicastro eta Deio. Etsaiak, gaztelarrak, horietako gaztelu bat erasotzen bazuen, ke seinale, adarra edo bestelako seinaleren bat igortzen zen gazteluz gaztelu, eta mezua mendebaldera dagoen Lizarraraino iristen zen, ehunen bat kilometroko bidaia ostean. Gaztelu horiek inguruko herrietako biztanleei berehalako eraso baten berri zabaltzen zieten, herritarrek ondasunak bildu eta alde egin zezaten, eta borroka- rako prest egon zitezten soldaduak. Muga- ldeko haitz gaineko gaztelua izateko, handi samarra zen Marañoñgoa, eta tontorrean ikusiko dituzuen lubaki eta murruez gain, dorre nagusi bat zuen er- dian, goiko ordokian, murru gaineko zaintza dorre ugari, hainbat etxe eta ura gorde ahal izateko putzua, aljibea.

lur ugari ostertza ixten badu ere, mendebal eta ekialdean goititzen diren harrizko haitz zorrotzak dira nabarmentzen: Peña Alta, San Tirso, Peña del León, Cruz del Castillo eta Palomares bereiz daitezke sartaldere luzatzen den ton- tor segidan, eta Kodes mendilerro- ko Yoar sortaldean.

Jaitsiera igotako bidetik egin badaiteke ere, iparraldeko labar itzelen artean behera doanetik egitea aholkatzen diezuegu. Etorri- tako bidetik ehun bat metro jaitsi ostean, bide nagusiak bihurtu-nea eskuinera ematen duenean, har- kaitz artetik, hasieran landare- tzak estalia, jotzen duen zidorra segi behar duzue (1.200m), aereo samarra. Hori bai, zaila ez izana- gatik, arriskutsua izan daiteke har- rria hezea badago. Lehen bihurtu- ne nagusian, ezkerrean doan bidea jarraituz gero, tontorreko haitzu- lo polit batera iritsiko zarete. Bide- banatze batera iritsitaokoa, esku- inera jo, eta berehala barneratuko zarete harkaitzen oinean heda- tzen den pagadian (1.100m). Atse- den hartu une batez, gorantz so egin eta amildegi haietan biderik egotea ezinezkoa irudituko zaizue. Zuek, baina, behean egongo zarete ordurako, bidea badagoenaren seinale. Orbel artean behera, El Plantiora doan pistaekin bat egingo duzue. Ezkerrean jo, eta be- rehala zarete errepikagailu be- rrian. Handik abiapuntura.

*Abiatu baino lehen...*

**SARTU**

www.euskalmet.net

Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraktiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

**www.euskalmet.net**

**euskalmet**  
euskal meteorologia agintzia

aurreru doan herria  
EUSKAL JAILURRIKATZA GOBERNUO VASCO  
2007/12/07